

## HUHEZIKo ikasleak irabazle herri kirolean, Gipuzkoako Unibertsitateen arteko txapelketan

2008/05/21

**Maiatzaren 16an** jokatu zen Atano III pilotalekuan, Donostian, herri kirol txapelketa Gipuzkoako Unibertsitateen artean, Xiba taldeak antolatuta, Kutxaren laguntzarekin. Bertan **Hezkuntza Fisikoko ikasleak** irten ziren irabazle, 2. mailakoak, sei neska eta sei mutil.

Herri kirol txapelketan denetik jokatu zen: **sokatira, ingudea, lokotxeta, zaku eramateak, zaku lasterketak, arrauna eta toka**. Irabazleek **6.000€** irabazi zuten, bidaia bat antolatzeko.

